



Amurrion, 2021ko urtarrilaren 11n.

Bazkide agurgarri hori:

Idatzi honen bitartez, honako hau adierazten dizuegu.

1.- BASO-ARLOKO DIRULAGUNTZA

Baso-arloko dirulaguntzak eskatzeko epea irekita dago, **Foru Gobernu Kontseiluaren 656/2020 Erabakia, 2020ko abenduaren 15koa**. Hori dela eta, interesaturik dauden guztiek Arabako Basogintza Elkartearen bulegotik pasatu dezakete **otsailaren 17ak arte**.

Tokiak: Amurrion: Elkarteko bulegoan. Asteazkenero eta ostiralero: 8:30 etatik 13 etara.

Aramaion: Udaletxean. Ostegunak: urtarrilaren 14, 21 eta 28ean eta otsailaren 4 eta 14ean: 9.30 etatik 15 etara.

- Dirulaguntza eskatzeko dokumentazioa:
 - N.A.N. fotokopia.
 - Bankuaren datuak.
 - Katastroko lursaileen erlazioa (eguneratua) edo eskrituren fotokopia.
 - Eskatzailearen helbide fiskala Arabatik kanpo egonez gero, interesdunak zerga-betebeharrak kitatuta dauzkala adierazten duen ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko du.
- **Garrantzitsua**: osasun-egoera dela-eta, **aurreko hitzordua eskatu** behar da **945 89 20 34** telefonoan.

2.- OROIGARRIA: ELKARTEAN DATUAK EGUNERATZEA.

Dakizuenek, bazkide bakoitzaren datuak eguneratzeko prozesuan murgilduta gaude. Hori dela eta, azken hilabeteetan, bazkide-fitxa eguneratu batzuk jaso dituzue, berrikusi, bete eta bulegora sinatuta bidaltzeko.

Mesedez, oraindik egin ez diguzuenok, fitxa ez baduzue edo argibideren bat behar baduzue, jar zaitezte harremanetan Garazirekin, **945 8902034** telefono-zenbakian.

Gogoan izan garrantzitsua dela datuak eguneratuta egotea kontratatuta dauzkagun erantzukizun zibileko aseguruaren zerbitzuak eskuratzeko; sozi-fitxan jasotako lurzatietako zuhaitzek sortutako kalteak bakarrik estaliko ditu.

Adeitasunez,.